

Dublindarra

Gidoia eta irudiak: Alfonso Zapico
Epilogoa: Eduardo Madina
Astiberri Ediciones. Bilbao, 2015
Zuri-beltza. Azal gogorra
232 orrialde. 17 x 24 cm. 18 euro
Nobela Grafikoa bilduma
ISBN: 978-84-16251-37-7

Abenduaren 4an salgai

Joyceren urratsei jarraiki

Dublindarra, *2012ko Komikiaren Sari Nazionalaren irabazle eta Zapicori ospea eman zion lana: "narratzaile aparta da, kontakizun bikainen sortzaile, eta ez dio men egiten gaur egungo ezein tiraniari"*

Alfonso Zapico komikigile asturiarra 3 urtez aritu zen guztiz lanari emana *Dublindarra* sortzeko; nobela grafikoak James Joyceren bizitza du ardatz, eta hark bizi izandako hainbat pasarte, elkarrizketa, lazeria eta abentura korritzen ditu, XX. mendeko pertsonaia zinez handi hura taxutuz.

Asmo handiko lan honek Komikiaren Sari Nazionala eskuratu zuen 2012an, eta horren osagarri dira *La ruta Joyce* (Astiberri, 2011) –bidaia-kaiera bat, Zapicok idazle handiaren urratsei jarraiki egin zuen dokumentazio-lanaz eta bisitatu zituen hiriez–, eta *Los pasos encontrados* erakusketa –aurten ikusgai izan da bai Niemeyer Zentroan bai eta Nafarroako Komikiaren VI. Azokan ere.

Alfonso Zapicoren kontakizun honek, pasadizo ugari ezagutzera emateaz gain, bidaia liluragarria ere proposatzen digu, irlandar unibertsalak bizitoki izan zituen hirietan barrena: Dublin, Trieste, Paris eta Zürich. Bidaia horretan egile ospetsu asko agertuko dira, hala nola Henrik Ibsen, W. B. Yeats, Ezra Pound, H. G. Wells, Bernard Shaw, T. S. Eliot, Virginia Woolf, Paul Valéry, Marcel Proust, Ernest Hemingway, Samuel Beckett, Sergei Eisenstein, Henri Matisse, André Gide, Le Corbusier, bai eta Lenin bera ere.

Café Budapest (Astiberri, 2008) fikzioarekin, Zapicok argi utzi zuen ez zela beldur lan konplexuei ekiteko, orduko hartan Palestina eta Israelen arteko gatazka etengabearen hastapenetan oinarritu baitzen. Joyceren lilurapean erori zen gero, eta, orduan ere, lan-plangintza zehatza jorratu zuen Asturiasko Meatze aldeko komikigileak; hasteko, Europan barrena egin zuen bidaia, eta horrek aukera eman zion zirriborro ugari marrazteko bertatik bertara, eta dokumentazio-lan zorrotza burutzeko, besteak beste, Joyceren bizitza eta lanaren aditu zenbaitekin elkarrizketatu baitzen. Horri guztiari esker, *Dublindarra* proiektua obra landu eta jantzi bihurtu zen, eta, azkenik, 2011n argia ikusi zuen. Orain, Sari Nazionalaren bultzadari esker, jatorrizkoaren 5. edizioa eta euskarazko lehen bertsioa argitaratu dira.

Zalantzarik gabe, Zapicok bere bidean aurrera egiten dihardu, eta horren seinale dugu kontakizun hau, abileziaz uztartu baititu gertaera historikoen adierazpen ezin zehatzagoa idazle irlandarraren eguneroko biziarekin, haren bide artistikoa goldatu zuten gorabehera horiexekin.

Andrés S. Braun. *Babelia - El País*

Zapico narratzaile aparta da, kontakizun bikainen sortzaile, eta ez dio men egiten gaur egungo ezein tiraniari.

Felipe H. Cava. *El Cultural - El Mundo*

Alfonso Zapico (Blimea, Asturias, 1981). Bere kontura diharduen komikigile eta ilustratzailea. Asturietako Printzerriko hezkuntza-proiektuetan lan egiten du, eta ilustrazioak, diseinuak eta kanpainak egin ohi ditu zenbait publizitate-agentzia, argitaletxe eta erakundetarako. Prentsa-ilustratzailea da Asturiasko bertako egunkari batzuetan *(La Nueva España, Cuenca del Nalón, Les Noticies)*. Lehen albuma frantsesezko merkatuan kaleratu zuen, 2006 urtean: *La guerra del profesor Bertenev,* molde historikoa duen komikia (Dolmen, 2009). Espainian zuzenean argitaraturiko lehen lana *Café Budapest* (Astiberri, 2008) izan zen; fikziozko lan bat, Palestina eta Israelen arteko gatazka etengabearen hastapenetan oinarriturik. Gero, James Joyceren bizitza komikira eramatea erabaki zuen, *Dublinés* (Astiberri, 2011), 2012ko Komikiaren Sari Nazionalaren irabazle. Lan horren haritik, *La ruta Joyce* bidaia-kaiera sortu zuen (Astiberri, 2011). Zapico Anguleman bizi da, nahiz eta sarritan jaioterrira itzuli, Asturiasera. *El otro mar* (Astiberri, 2013) lana argitaratu ondoren, orain, asmo handiko obra batean murgildurik dago, *La balada del norte,* eta bi liburukietarik lehena dagoeneko kalean da (Astiberri, 2015).

Alfonso Zapicoren beste lan batzuk Astiberri argitaletxean



La balada del norte
1. liburua
2. edizioa
232 orrialde. 18 euro
ISBN: 978-84-15685-65-4



El otro mar
56 orrialde. 14 euro
ISBN: 978-84-15685-38-8



La ruta Joyce
2. edizioa
208 orrialde. 15 euro
ISBN: 978-84-15163-42-8



Café Budapest
4. edizioa
168 orrialde. 16 euro
ISBN: 978-84-96815-62-9

facebook.com/astiberri @astiberri
ASTIBERRI
astiberri.com
Apdo. 485. 48080. Bilbao
Tel.: 661 288 747 • info@astiberri.com

facebook.com/astiberri @astiberri
ASTIBERRI
astiberri.com
Apdo. 485. 48080. Bilbao
Tel.: 661 288 747 • info@astiberri.com

facebook.com/astiberri @astiberri
ASTIBERRI
astiberri.com
Apdo. 485. 48080. Bilbao
Tel.: 661 288 747 • info@astiberri.com



facebook.com/astiberri @astiberri
ASTIBERRI
astiberri.com
Apdo. 485. 48080. Bilbao
Tel.: 661 288 747 • info@astiberri.com